

KOSTUEN EGITURA

Kostuei dagokionez, hauek izango dira gure enpresaren kostuak:

Kostu finkoei dagokionez, hasiera baten Oñatiko Udalak erraztutako lokal bateaz baliatuko gara, kostua hilabetero 10€koa izanik. Horretaz gain, gure langileen soldatak, hasieran, 1000€ ingurukoak izango dira langile bakoitzeko. 5 langile edukiko ditugunez, 5000€ ordainduko dizkiegu guztira. Telefonoaren tarifa finkoa izango denez, 15€ ordainduko ditugu hilabetero. Gure enpresarako hainbat baliabide ere beharrezkoa direnez, hauek erosi egin beharko ditugu. Horien artean, bi mugikor bakoitzak 30€ balio duelarik, bi ordenagailu bakoitzaren prezioa 300€ izanik, kotxe bat gure langileak mugitu ahal izateko 6500€ inguru balio duelarik.

Garraioari dagokionez, hauek zonaldeka ezarritako prezio finko baten arabera izango dira. Herrian, Oñatin, 5€ko kuota izango da. Debagoienan, hau da Oñati dagoen bailaran, kuota 10€koa izango da. Bailaratik kanpo, Gipuzkoa mailan, garraiorako kuota 20€koa da.

Kostuak lehenengo hilabetean:

<i>Produktua</i>	<i>Prezioa</i>	<i>Kopurua</i>	<i>GUZTIRA</i>
ORDENAGAILUA	300€	2	600€
TELEFONOA	30€	2	60€
TELEFONOAREN TARIFA	15€	2	30€
SOLDATAK	1000€/langileko	5	5000€
GARRAIOA	5€ (herri barruan) 10€ (bailara barruan) 20€ (bailaratik kanpo)		
ENPRESAREN KOTXEA	6500€	1	6500€
LOKALA	10€	Oñatiko Udalaren laguntzaz baliatuz, beraiek erraztutako lokala erabiliko dugu.	

KOSTUAK GUZTIRA: 12200€ + garraioa